

## PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Egungo gizartearen egunerokotasunak badirudi ez duela gelditzeko unerik. Etengabe gabiltza toki batetik bestera korrika eta presaka, erlojuen orratzen aurkako lehia bat izango balitz bezala. Sarritan ez dugu astirik izaten gehien gustatzen zaigunaz gozatzeko, baina larriena benetan beharrezkoak diren jarduera horiek egiteko ere denborarik ez dugula da!

Zalantzarik gabe, arropa erostea funtsezko jarduera horietako bat da, arroparik gabe ezin baikara kalera irten edota eroso sentitu. Gehienetan dendak gainezka egoten dira eta horrek geure erosketak gauzatzea galarazten digu. Arropa erosteko unean probatzea ezinbestekoa da, noski, baina aldagelak beteta ikustean, kontsumitzaileen tendentzia dendetatik esku-hutsik ateratzea da.

Horrez gain, sarritan, hamaika dendatan aurki ditzakegun jantziak apur bat zikinak egon daitezke, hau da, higie aldetik bete behar diren irizpideak ez dira guztiz betetzen, eta honen aurrean, pertsona eskrupulosoek atzera egiten dute erosketetan, benetan gustuko zuten soineko edota galtza horiek erabat baztertuz.

Halaber, denda ugaritan aurkitzen diren aldagelak tamaina aldetik txikiak dira eta kopuru aldetik gutxi egon ohi dira; hortaz, espazio murriztu horietan klaustrofobikoak diren pertsonak asko sufri dezakete eta inondik inora ere ez dute arropa probatuko toki horietan. Beraz, arazo horiek dituzten herritarrek aukera gutxiago izango dituzte gustuko dituzten jantzi horiek erosi ahal izateko.

Egoera horiek saihesteko asmoz, “Hiru Hirukiak” taldeko partaideak inoiz ikusi ez den proposamen berritzaile eta efikaz bat aurkeztera gatoz. Trynow deituriko aplikazioa jarriko dugu abian: arropa probatu gabe, arropa soinean nola gelditzen zaigun ikusteko aukera ematen digun aplikazioa. Honi esker, aurretik aipatu ditugun arazo guztiei konponbidea aurkitu diogula esan genezake.

Aplikazioa sortzearen ideia neguko merkealdiak zirenean bururatu zitzaigun. Dendak gainezka ikustean eta jantzi ugari egoera txarrean ikusi bezain pronto, modaren egoera eta jantziak probatzeko dagoen egoera hobetze aldera eramateko aplikazio baten beharra zegoela argi ikusi genuen. Beraz, geure sormena landuz eta zenbait ideia partekatuz, Trynow jarri dugu abian, modaren esparruan aurrerapauso bat emanez eta zenbait bezerori bizitza erraztuz.

Gu, Urretxu-Zumarraga Ikastolako talde bat gara, “Hiru Hirukiak” izena dugu, eta Miren Arsuaga, Nora Blázquez eta Ane Villarino gara. Trynow aplikazioaren funtzionamenduan murgilduta gaude proiektu berritzaile honek aurrera jarrai dezan eta izugarritzko arrakasta izan dezan.

